


ISEI - IVEI

**Rs8. DERRIGORREZKOAREN ONDOKO
BIGARREN HEZKUNTZA BUKATUTA IZATEA**





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: 2011ko abendua

© ISEI•IVEIk argitaratua

ISEI•IVEIK ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta

**DERRIGORREZKOAREN ONDOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO TITULUA
(CINE 3A, 3B Y 3C) GUTXIENEZ LORTU DUEN 20-24 URTE BITARTEKO
BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.**

Europar Batasunaren helburua 2010. urterako¹: 20-24 urte bitarteko biztanleen % 85ek gutxienez goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak (CINE 3) bukatuta izatea.

Oso garrantzitsua da biztanleria helduaren ehuneko handi batek goi mailako bigarren hezkuntzako titulua lor dezan, biztanleria orokorraren hezkuntza-maila, eta bereziki biztanle langileen hezkuntza-maila, igotzeko.

Hezkuntza-maila horrek ematen duen prestakuntza eta gaitasuna, goi mailako hezkuntzara joateko izaera propedeutikoa izateaz gain, berez bukaerako prestakuntza bezala har daiteke, gazteei goi mailako ikasketan eta lan munduan integratzeko behar diren giza eta adimen heldutasuna eta gaitasun teknikoa ematen baitizkie.

Gaur egun ezagutzen oinarritutako gizartean egoki parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzak ematen den oinarria edukitzea. Izan ere, ELGAko herrialdeetan goi mailako bigarren hezkuntza gutxieneko hezkuntza-maila bezala hartzen da lan-merkatuan postu egoki eta lehiakor bat aurkitzeko.

Goi mailako ikasketak bukatuak dituzten biztanleen ehunekoa Europar Batasuneko 27 herrialdeetan 2010. urtean % 79,0 zen, eta, beraz, urte hartarako finkatutako helburua (% 85) ez da bete. 2000. urtetik aurrera etengabeko bilakaera izan da, baina igoera 2,4 puntukoa baino ez da izan. Hala eta guztiz ere, EBko 27 herrialdeetako 9k helburua lortu dute dagoeneko, haien artean 2010. urtean goi mailako bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handiena dutenak Eslovakia (% 93,2), Txekiar Errepublika (% 91,9) eta Polonia (% 91,1) direlarik. Ehunekorik apalena duten herrialdeen artean Malta (% 53,3) eta Portugal (% 58,7) daude, 2000. urtetik 2010. urtera hurrenez hurren 12,4 eta 15,5 puntuko igoera izan duten arren.

Euskadin 2000-2010 aldian derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua lortu duen adin tarte horretako biztanleriaren ehunekoa egonkor samar mantendu da, % 80-81 inguruan, 2003an eta 2009an izan ezik, urte haietako ehunekoak txikiagoak izan baitziren (% 78,3 eta % 76,9 hurrenez hurren). Euskadin 2010eko ehunekoa berriro igo zen % 80 ingurura, 2009an izan zen 5 puntuko jaitsieraren ostean. Edozein modutan ere, horrek esan nahi du Euskadik ez duela helburua bete, eta, horrez gain, azken hamarraldi honetan derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekoa apur bat jaitsi dela (1,4 puntu).

2010. urtean gizonezkoen kasuan 2000etik lortutako ehunekorik apalena lortu zen, eta Euskadiko adin horretako emakumezkoen kasuan urte hartako ehunekoa (% 81,4) ez

¹ Helburu hau ez da 2020rako helburu bezala hartzen; aurrerantzean eskola uzte goiztiarrari buruzko informazio osagarria eskaintzen duen adierazle bezala hartuko da.



zen helburuaren mailara heldu, helburuaren maila hainbat urtetan gainditua zuten arren. Hala eta guztiz ere, aipatu beharrekoa da sexuen arteko aldea nabarmen jaitsi dela, 2000n 12,0 puntukoa izatetik 2010ean 2,6 puntukoa izatera pasa delarik.

Autonomia erkidegoen kasuan, egoera larritu egin da, 2000-2010 aldian izandako bilakaera orokorra (-4,7 puntu) eta erkidego gehienetakoa negatiboa izan baita. Salbuespenak Extremadura (4,8 puntu), Galizia (1,9 puntu) eta Kanariak (0,5 puntu) izan dira, ehunekoa gehitu egin baitute. Autonomia erkidegoetako batez bestekoa 2010. urtean % 61,2koa izan zen, eta ehunekorik altuenak Euskadin (% 80,1) eta Nafarroan (% 76,6) izan ziren. Ehunekorik apalenak Ceuta eta Melillan (% 42,9) eta Balear uharteetan (% 49,7) izan ziren 2010. urtean.

Azpimarratzekoa modukoa da Espainian azken bost urteotan, 2005-2010, beheranzko joera izan dela, eta Europar Batasuneko herrialdeetan, berriz, goranzkoa, motel-motel hazten badoa ere.

Adierazle honetan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko alde nabarmena antzematen da, eta aldea urteetan zehar mantendu da.

Hartara, 2010. urtean, bai Europar Batasuneko herrialdeetan, bai autonomia erkidegoetan, eta baita Euskadin ere, goi mailako bigarren hezkuntzako titulua lortu zutenen artean emakumezkoen ehunekoa gizonezkoa baino handiagoa izan zen kasu guztietan. Espainiaren kasuan salbuespena Errioxa izan zen, bertan derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua lortu zuten gizonezkoen ehunekoa (% 65,5) emakumezkoena (% 61,4) baino handiagoa izan baitzen. Gainontzeko erkidegoetako batez besteko aldea 13,2 puntukoa izan zen, alderik handiena Gaztela-Mantxan (21,1 puntu) eta txikiena Euskadin (2,6 puntu) izan zirelarik.

EBko 27 herrialdeetako batez besteko aldea 5,6 puntukoa izan zen 2010ean. Alderik handiena izan zuten herrialdeak Danimarka (14,2 puntu), Malta (13,8 puntu) eta Espainia (13,2 puntu) izan ziren. Alderik txikiena izan zutenak Errumania (0,1 puntu), Austria (1,3 puntu) eta Txekiar Errepublikak (1,7 puntu) izan ziren. 2010ean bigarren hezkuntzako titulua lortu dutenen artean Bulgarian eta Eslovakian bakarrik izan da gizonezkoen ehunekoa (% 85,0 eta % 93,2 hurrenez hurren) emakumezkoa baino handiagoa (% 83,6 eta % 93,1 hurrenez hurren).




Rs8.1 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (CINE 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.

Urtea*	Sexu biak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea ¹
2000	81,5	87,6	75,7	12,0
2001	81,2	86,5	76,2	10,4
2002	80,9	83,4	78,6	4,9
2003	78,3	83,7	73,2	10,5
2004	81,5	85,5	77,7	7,8
2005	81,0	86,0	76,3	9,7
2006	81,2	87,3	75,3	12,0
2007	80,8	86,6	75,3	11,3
2008	80,1	85,4	75,0	10,4
2009	76,9	84,7	69,3	15,4
2010	80,1	81,4	78,8	2,6

¹Balio positiboek derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.

*Aldiko datuak urtekoak dira eta EPA-2005 teknologiarekin kalkulatu dira.



Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). Metodología (EPA-2005). 4 hiruhilabeteetatik ateratako urteko datuak.



Rs8.2 taula:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (CINE 3A, 3B eta -3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera. Autonomia erkidegoetako datuak.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Espainia	65,9	64,9	63,7	62,2	61,2	61,8	61,6	61,1	60,0	59,9	61,2
Andaluzia	58,3	58,5	56,4	54,3	52,8	53,1	52,3	54,0	53,0	53,0	53,6
Aragoi	75,1	75,6	68,0	71,3	70,1	70,9	67,9	66,4	67,3	68,7	67,2
Asturias	71,8	73,9	72,4	64,6	66,9	72,2	67,0	70,2	72,8	70,8	68,6
Balear Uharteak	50,8	50,3	54,2	52,2	51,1	51,9	51,0	47,6	48,2	46,5	49,7
Ceuta eta Melilla	51,1	56,1	53,7	53,6	50,6	46,2	39,4	37,5	43,2	50,3	42,9
Errioxa	70,7	71,9	69,7	63,2	59,8	67,8	64,8	62,1	59,3	61,4	63,5
Euskadi	81,5	81,2	81,0	78,3	81,5	81,0	81,2	80,8	80,1	76,9	80,1
Extremadura	51,9	55,4	57,3	55,8	51,9	53,9	54,6	55,4	53,6	52,9	56,6
Galizia	65,0	66,5	66,8	69,2	68,8	69,2	67,5	68,0	66,2	63,4	66,9
Gaztela eta Leon	69,9	69,6	70,0	67,6	70,2	66,6	67,1	67,4	67,1	66,0	66,2
Gaztela-Mantxa	59,1	57,6	55,8	55,5	55,6	55,0	54,2	54,1	51,7	55,0	54,9
Kanariak	55,6	54,6	59,3	59,1	58,4	59,3	54,4	52,1	55,5	57,1	56,1
Kantabria	71,1	69,6	67,1	65,3	67,0	71,8	69,6	67,5	70,4	65,3	63,3
Katalunia	67,9	65,4	65,0	60,9	59,4	61,2	65,7	61,2	59,4	61,4	61,7
Madril (Erkidegoa)	77,9	75,6	72,0	72,2	68,6	67,9	66,4	67,2	65,4	66,1	68,9
Murtzia	57,2	58,4	56,0	52,9	51,7	53,0	51,9	51,8	51,0	54,1	56,2
Nafarroa (F. Erkidegoa)	82,4	79,8	75,6	75,0	73,7	77,4	82,9	78,4	77,3	74,4	76,6
Valentziako E.	62,1	58,5	58,1	58,4	58,6	61,0	61,8	61,4	59,1	56,7	59,5


Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). Metodología (EPA-2005). 4 hiru hilabeteetatik ateratako urteko datuak.



Rs8.2 grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (CINE 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Autonomia erkidegoetako datuak. 2005. eta 2010. urteak.



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera ordenatua, "2010. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). Metodología (EPA-2005). 4 hiru hilabeteetatik ateratako urteko datuak.




Rs8.3 taula eta grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (CINE 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia erkidegoetako datuak. 2010. urtea.

	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea ¹
Espainia	61,2	67,9	54,7	13,2
Andaluzia	53,6	61,2	46,4	14,8
Aragoi	67,2	72,1	62,4	9,7
Asturias	68,6	74,0	63,4	10,6
Balearr Uharteak	49,7	58,3	41,4	16,9
Ceuta eta Melilla	42,9	51,7	34,5	17,2
Errioxa	63,5	61,4	65,5	-4,1
Euskadi	80,1	81,4	78,8	2,6
Extremadura	56,6	66,3	47,6	18,7
Galizia	66,9	74,7	59,2	15,5
Gaztela eta Leon	66,2	71,2	61,4	9,8
Gaztela-Mantxa	54,9	65,8	44,7	21,1
Kanariak	56,1	62,5	49,9	12,6
Kantabria	63,3	73,2	53,7	19,5
Katalunia	61,7	69,0	54,7	14,3
Madril (Erkidegoa)	68,9	74,4	63,4	11,0
Murtzia	56,2	64,5	48,5	16,0
Nafarroa (F. Erkidegoa)	76,6	83,4	70,0	13,4
Valentziako E.	59,5	65,0	54,3	10,7

¹Balio positiboek derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoak laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera ordenatua, "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). Metodología (EPA-2005). 4 hiruhilabeteetatik ateratako urteko datuak.



Rs8.4 taula:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (CINE 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
EB (27 herrialde)	76,6	76,6	76,7	76,9	77,1	77,5	77,9	78,1	78,4	78,6	79,0
EB (25 herrialde)	76,6	76,5	76,7	77,0	77,3	77,6	77,9	78,0	78,3	78,5	78,9
EB (15 herrialde)	73,7	73,6	73,7	74,1	74,4	74,7	75,0	75,2	75,7	76,0	76,6
Alemania	74,7	73,6	73,3	72,5	72,8	71,5 (b)	71,6	72,5	74,1	73,7	74,4
Austria	85,1 (b)	85,1	85,3	84,2	85,8 (i)	85,9	85,8	84,1	84,5	86,0	85,6
Belgika	81,7 (b)	81,7	81,6	81,2	81,8	81,8	82,4	82,6	82,2	83,3	82,5
Bulgaria	75,2	78,1 (b)	77,4	76,3	76,1	76,5	80,5 (i)	83,3	83,7	83,7	84,4
Danimarka	72,0	78,4 (i)	78,6	76,2 (b)	76,2	77,1	77,4	70,8 (b)	70,6	70,1	68,3
Erresuma Batua	76,7	76,9	77,1	78,6	77,0	78,1	78,8	78,1	78,2	79,3	80,4
Errumania	76,1	77,3	76,3	75,0	75,3	76,0	77,2	77,4	78,3	78,3	78,2
Eslovakiar Errepubli	94,8	94,4	94,5	94,1	91,7	91,8	91,5	91,3	92,3	93,3	93,2
Eslovenia	88,0 (b)	88,2	90,7	90,8	90,5	90,5	89,4	91,5	90,2	89,4	89,1
Espainia	66,0	65,0	63,7	62,2	61,2	61,8	61,6	61,1	60,0	59,9	61,2
Estonia	79,0 (b)	79,8	81,4	81,5	80,3	82,6	82,0	80,9	82,2	82,3	83,2
Euskadi*	81,5	81,2	80,9	78,3	81,5	81,0	81,2	80,8	80,1	76,9	80,1
Finlandia	87,7 (b)	86,1	85,8	85,3	84,5	83,4	84,7	86,5	86,2	85,1	84,2
Frantzia	81,6	81,8	81,7	81,5 (p)	81,8 (p)	83,4	83,3	82,4	83,3	83,6	82,8
Grezia	79,2	80,2	81,1	81,7	83,0	84,1	81,0	82,1	82,1	82,2	83,4
Herbehereak	71,9	72,7	73,1	75,0	75,0	75,6	74,7	76,2	76,2	76,6	77,6 (b)
Hungaria	83,5	84,7	85,9	84,7 (b)	83,5	83,4	82,9	84,0	83,6	84,0	84,0
Irlanda	82,6	83,9	84,0	85,1	85,3	85,8	85,8	86,8	87,7	87,0	88,0
Italia	69,4 (b)	67,9	69,6	71,0	73,4	73,6	75,5	76,3	76,5	76,3	76,3
Letonia	76,5	71,7 (i)	77,1 (b)	75,4	79,5	79,9	81,0	80,2	80,0	80,5	79,9
Lituania	78,9 (i)	80,5	81,3 (b)	84,2	85,0	87,8	88,2	89,0	89,1	86,9	86,9
Luxenburgo	77,5	68,0	69,8	72,7 (b)	72,5	71,1	69,3	70,9	72,8	76,8 (p)	73,4 (p)
Malta	40,9	40,1	39,0	45,1 (b)	51,0	53,7	51,1	55,5	51,1 (p)	53,3 (p)	53,3 (p)
Polonia	88,8 (b)	89,7	89,2	90,3	90,9	91,1	91,7	91,6	91,3	91,3	91,1
Portugal	43,2	44,4	44,4	47,9	49,6	49,0	49,6	53,4	54,3	55,5	58,7
Suedia	85,2	85,5 (b)	86,7	85,8	86,0	87,5	84,9	85,5	85,6	86,4	85,9
Txekiar Errepublika	91,2	90,6	92,2	92,1	91,4	91,2	91,8	91,8	91,6	91,9	91,9
Zipre	79,0	80,5	83,5	79,5	77,6	80,4	83,7	85,8	85,1	87,4	86,3

(b) Segidaren haustura. (i) Ikus oharrak: http://europa.eu.int/estatref/info/sdds/en/strind/innore_ir09.htm. (p) Behin behineko balioa.


*Euskadirako INEK emandako datuak erabili dira.

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



Rs8.4 grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (CINE 3A, 3B eta-3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan. 2005. eta 2010. urteak.



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera ordenatua, "2010. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



Rs8.5 taula:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (CINE 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Europar Batasuneko 27 herrialdeetako datuak. 2010. urtea.

	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea ¹
EB (27 herrialde)	79,0	81,8	76,2	5,6
EB (25 herrialde)	78,9	81,9	76,0	5,9
EB (15 herrialde)	76,6	79,7	73,5	6,2
Alemania	74,4	76,7	72,2	4,5
Austria	85,6	86,2	84,9	1,3
Belgika	82,5	84,7	80,3	4,4
Bulgaria	84,4	83,6	85,0	-1,4
Zipre	86,3	89,0	83,2	5,8
Danimarka	68,3	75,6	61,4	14,2
Eslovakiar Errepublika	93,2	93,1	93,2	-0,1
Eslovenia	89,1	92,8	86,1	6,7
Espainia	61,2	67,9	54,7	13,2
Estonia	83,2	89,5	76,9	12,6
Euskadi*	80,1	81,4	78,8	2,6
Finlandia	84,2	85,6	82,8	2,8
Frantzia	82,8	85,8	79,8	6,0
Grezia	83,4	87,2	79,5	7,7
Hungaria	84,0	85,9	82,0	3,9
Irlanda	88,0	90,6	85,3	5,3
Italia	76,3	80,2	72,6	7,6
Letonia	79,9	85,9	74,1	11,8
Lituania	86,9	89,7	84,2	5,5
Luxenburgo	73,4 (p)	78,7 (p)	67,9 (p)	10,8
Malta	53,3 (p)	60,8 (p)	47,0 (p)	13,8
Herbehereak	77,6 (b)	81,6 (b)	73,7 (b)	7,9
Polonia	91,1	93,8	88,4	5,4
Portugal	58,7	62,7	54,8	7,9
Erresuma Batua	80,4	82,0	78,9	3,1
Txekiar Errepublika	91,9	92,8	91,1	1,7
Errumania	78,2	78,8	77,7	1,1
Suedia	85,9	86,9	84,9	2,0

p) Behin-behineko balioa. (b) Segidaren haustura.


*Euskadirako INEren datuak.

¹Balio positiboek derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.



Rs8.5 grafikoa:

Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako titulua (CINE 3A, 3B eta 3C) lortu duen biztanleriaren (20-24 urte) ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Europar Batasuneko 27 herrialdeetako datuak. 2010. urtea



Derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera ordenatua, "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.